

GOGOFETA

arigera

**Helduen euskalduntze-alfabetatzea
suspertzeko proiektua**

AEK EUSKALTEGIA

UDAL EUSKALTEGIA

ELGOIBARKO UDALA

ELGOIBARKO IZARRA

0.- AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| 1.- SEKTOREAREN EGOERARI BURUZKO GOGOETA | 3 |
| 2.- PROIEKTUAREN MUINA EDO HELBURU NAGUSIA | 6 |
| 3.- ERAKUNDEEN INPLIKAZIO MAILA ETA BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA | 7 |
| 4.- AURRERANTZEAN ZERK DAUKA LEHENTASUNA? EUSKALTEGIEN INTERES PARTIKULARREK ALA PROIEKTUARENAK? | 8 |
| 5.- PROIEKTUKO ESKAINTZETAN EUSKARA IKASLEEK IZAN BEHAR DUTEN TRATAMENDUA | 9 |
| 6.- KONTZEPTUEI BURUZKO GOGOETA | 10 |
| 6.1.- Integrazioa. | |
| 6.2.- Hizkuntz komunitatea. | |
| 7.- MATRIKULAZIO KANPAINA BATERATUA | 13 |
| ERANSKINA: SEKTOREAREN EGOERA ELGOIBARREN | 14 |
| 1.- EUSKARAREN EGOERA ELGOIBARREN | 15 |
| 1.1.- Ezagutza | |
| 1.2.- Erabilpena | |
| 2.- EUSKALTEGIETAKO DATUAK | 17 |
| 2.1.- Matrikulazioa | 18 |
| 2.2.- Bajak | 18 |
| 2.3.- Talderik gabe gelditzen direnak | 18 |
| 2.4.- Prezioak | 19 |
| 2.5.- Emaitzak | 20 |
| 3.- GRAFIKOAK | 21 |
| 3.1.- Matrikulazioa | 21 |
| 3.2.- Bajak | 22 |
| 3.3.- Talderik gabe gelditu direnak | 23 |

1.- SEKTOREAREN EGOERARI BURUZKO GOGOETA

Proiektua prestatu, babestu eta zuzenduko dugun lau erakundeok, Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzea bultzada baten beharrean dagoela sumatu eta sektorearen egoera aztertzeari ekin diogu.

1983 urtez geroztik bi euskaltegi daude Elgoibarren: AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia.

Elgoibar euskalduntzeko lanean urteak daramatzagu herriko zenbait eskola, euskaltegi eta elkarte, baina hala ere gure herriko biztanleen % 30 oraindik ere erdalduna da.

Euskaltegiek, urtero egiten dituzte erdaldunak euskalduntzeko eta euskaldunak alfabetatu edo EGA azterketa prestatzeko kanpainak, baina arrazoi ezberdinak direla medio, 93-94 ikas-turtetik hona, gero eta elgoibartar gutxiago matrikulatzen da.

Aipatzekoa da, bestalde, euskaltegietan euskara gaitasuna hobetzeko izena ematen duen euskaldun kopuru baxua. Euskaltegietako matrikulen %21 besterik ez dira ALFA eta EGAKo ikasleak. Eta EGA ikastaroetako ikasle batzuk "euskaldun berriak" direla kontutan hartzen badugu, euskaltegira joaten diren euskaldun zaharren kopurua oso urria dela esan daiteke. Gure ustez euskara maila eta kalitatea hobetzearen premia duen euskaldun asko badago ere, badirudi euskaldun zaharrek ez dutela beharrik sentitzen.

Horrez gain, matrikulazio garaian izena ematen dutenen % 16 talderik gabe gelditzen da. Izena emandako ikasle guztiak taldeetan sartzea ia ezinezkoa izaten da. Maila eta ordutegi desberdinak kontutan hartu behar dituzte euskaltegiek eta 8 ikasle baino gutxiagoko talderik ezin dute sortu. Beraz, oso zaila da ikasle guztientzat talde egokia egotea.

Bestalde, eta nahiz eta arazo honi irtenbidea ematea zaila edo ia ezinezkoa den, matrikulatzen diren ikasleen % 25ak ikasturtea amaitu baino lehen uzten dio euskara ikasteari. Besteak beste, lana aurkitzea, INEMeko ikastaroak, eta ikasketak izaten dira euskaltegia uztearen arrazoiak.

Beraz, argi dago euskalduntze prozesua hasi eta arrakastaz bukatzen duen lagun gutxi dagoela Elgoibarren. Sei ikasturtetan, 94 ikaslek lortu zuten zeukaten mailatik hasi eta 8 urratsa gain-ditzea. Baina euskaltegien lana baloratzeko aurreko datuari bakarrik begiratzea ez zaigu nahikoa iruditzen. Alde batetik 8. urratsa lortu duten ikasle horiez gain, 9, 10, 11, 12, EGA eta alfabetatzea lortu duten ikasleak baitaude eta bestetik, hizkuntza bat ikasten hastean, helburu desberdinak jar diezazkiokegu geure buruari, besteak beste, ikas prozesua bukatzea, ulermen maila lortzea edo seme-alabekin hitz egitea. Beraz, argi izan behar dugu, ikasle askoren helburua, guretzat erdi bidean gelditzea den maila lortzea izan daitekeela.

Ikas prozesua bukatzen dutenak gutxi badira, are gutxiago ikasitakoa eguneroko bizitzan praktikara eramaten dutenak. Ikasleen gehiengoak ingurune hurbilean lagun euskaldunik ez duenez, euskaltegitik irten eta ez dute euskara erabiltzeko premiarik sentitzen eta klasean ikasitakoari ez diote behar besteko erabilerarik ikusten.

Amaitzeko, bada dezente kezkatzen gaituen beste gai bat. Gogoetaren hasieran esan dugu bi euskaltegi dauzkagula herrian. Eta horrelako kasuetan sarri gertatzen den bezala, bi euskaltegiei jarri dizkiete etiketak. Etiketa edo aurreiritzi hauek, besteak beste, politikari edo metodologiari lotuta daude eta oso mesede txikia egiten diete bai AEK euskaltegiari eta baita Udal Euskaltegiari ere. Aurreiritzi edo etiketa hauek beste garai bateko egoera soziopolitikoaren ondorioz izan zirela garbi daukagu eta gaur egun ez dute inolako sinesgarritasunik.

Orain arte sektorearen alde ilunak edo hutsuneak nabarmendu baditugu ere, ez pentsa dena beltza denik. Elgoibarko euskaltegietan esperientzia handidun irakasleak ditugu eta beraien lanerako baliagarriak diren ikastaro ezberdinen bidez eguneratzen dira. Bi euskaltegietako irakasleak urte asko daramate erdaldun eta euskaldunei euskara irakasten eta euskal kultura bultzatzen. Beraien lanaren fruitu dira lorpen hauek: euskaltegietan erdaldun sartu eta euskaldun irten diren elgoibartarrak, euskara gaitasun agiria lortu dutenak, ezer ez ulertzetik elkarrizketa sinpleak ulertzeko gai izatera iritsi direnak eta euskaraz mintzatzera ausartu ez arren ulermen maila ona dutenak, adibidez.

Bi euskaltegiek urteak daramatzate bakoitza bere aldetik Elgoibar euskalduntzeko ahaleginean, baina hemendik aurrera, interes partikularren gainetik eta beti ere euskararen alde bada, elkarlanean aritzeko prest azaldu dira. Eta elkarlan horren ondorio da AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, Udalak eta Elgoibarko Izarrak prestatu eta aurrera ateratzen saiatuko garen proiektu hau.

Elgoibar euskalduntzeko oraindik ere lan handia egin beharra dago. Ezin ditugu ahaztu euskaltegietan urtero matrikulatzen diren ikasleak. Euskara ikasi nahi duen jendea badago eta ikasle horiek, zerbait gehiago merezi dutela uste dugu.

Aurrean azaldutako arrazoiak proiektu hau aurrera eramateko nahikoa arrazoi direla iruditzen zaigu. Guzti honengatik, helduen euskalduntze-alfabetatzeak, orain arte egin denaz gain, beraien lanaren osagarri izango den proiektu honen beharra duela iruditzen zaigu proiektua aurrera eramango dugun lau erakundeoi.

Hemen aipatutako datu hauek eta jarraian azaltzen diren indargune, ahulezia eta erronka nagusiak, Elgoibarren euskaltegien egoera zein den aztertzeko egin dugun lanaren ondorio dira. Datu gehiago edo zehatzagoak ezagutu nahi izanez gero, ikus "sektorearen egoera Elgoibarren" eranskina.

Oharra:

Aurrean eman ditugun datuak sektorean (bi euskaltegietan) azken 8 ikasturteetan (91-92 ikasturtetik 98-99 ikasturtera bitartean) eman diren datuen batezbestekoak dira.

| INDARGUNEAK | AHULEZIAK | ERRONKA NAGUSIAK |
|---|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> · Elkarlanerako borondatea. · Lau erakundek bat egin dugu sektoreari indarra eta arnas berria emateko. Interes orokorrak norberaren interesen aurretik ipintzeko prestutasuna. · Baliabide eta aurrekontu egokia lortzeko aukera. · Urte askotako esperientziadun irakasleak. Prestutasun eta borondate onekoak. | <ul style="list-style-type: none"> · Hizkuntza bat ikastea neketsua da. · Erdaldunek ez dute euskara ikasteko premiarik sentitzen. · Matrikulazio jaitsiera. · Euskaldungoak ez du alfabetatzeko beharrik sumatzen. · Kanean, euskaltegien kalterako diren aurreiritzi eta ideologizazioak daude. · Emaitzak: <ul style="list-style-type: none"> - Baja askotxo. - Ikas-prozesuan jarraipenik ez. - Maila egokia gutxi lortzen dute. - Ikasitakoa ez da euskaltegitik kanpo erabiltzen eta ikasitakoa galdu egiten da. · Talderik gabe gelditzen den ikasle kopuru handia. · Udalak ikasleei emandako diru laguntzetan, nahiz eta gero eta txikiagoak izan, badaude oraindik desorekak eta aldeak. | <ul style="list-style-type: none"> · Matrikulazio jaitsiera neutralizatzea eta igotzea. · Euskaldungoaren euskara maila hobetzea. · Sektorea indartzea, promozionatzea eta prestigioa ematea. · Emaitzei buruzko segimendua egitea. · Ikasleak zaintzea eta mimatzea. · Euskaltegiko lanari kanean jarraipena emateko ekintzak antolatzea. · Ikasleak talderik gabe ez geratzea. · Erdaldunak euskara ikastera animatzeaz gain integratzeko pausuak ematen lagundu. · Euskaldun zaharrak euskaldun berrien integrazioan inplikatzeko. |

2.- PROIEKTUAREN MUINA EDO HELBURU NAGUSIA

Proiektuaren helburu nagusia Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzea indartzea edo suspertzea da. Horretarako, euskaltegiek gaur egun egiten duten lanaren lagungarri eta osagarri izan nahi du proiektuak. Halaber, sektorean egun sumatzen ditugun hutsuneak edo ahuleziak ahal dugun neurrian betetzea izango da bigarren zeregin nagusia.

Halere, proiektuak aurrera egiten duen heinean, baliteke beste behar edo helburu batzuk jartzea geure buruari. Esaterako, sektorearen berregituraketa edo berrantolaketa izan daiteke, adibidez, etorkizunean hausnarketarako gaia. Baina hori, etortzekotan ere, geroago etorriko litzateke, hasteko nahikoa lan izango baitugu arestian aipatu ditugun bi helburuekin.

Euskaltegiei eskaini nahi diegun laguntza era askotarikoa izan daiteke:

- Euren egitasmoak bultzatuz eta indartuz.
- Elkarlanean egitasmo bereziak bultzatuz.
- Errefortzu egitasmo bereziak prestatuz.
- ...

Izan ere, helburu nagusia, hasieran esan dugun bezala, Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzea indartzea izango da, eta horretarako imajinazioa izan behar dugu. Imajinazioa bai gaur egungo eskaintzei laguntzeko, eta baita eskaintza eta egitasmo berriak prestatzeko ere.

3.- ERAKUNDEEN INPLIKAZIO MAILA ETA BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA

Proiektua prestatu, babestu eta zuzenduko dugun lau erakundeok prest gaude gure giza baliabideak proiektuan inplikatzeko. Bi euskaltegien esanetan, langile guztiak prest daude proiektuan inplikatzeko eta ardurak hartzeko. Arduren banaketari garrantzia ematen diogu, izan ere koordinazioa zuzendarien arduran egongo bada ere, garrantzitsua baita gainontzeko irakasleak ere proiektuan inplikatzeko. Halaber, ELGOIBARKO IZARRA eta Udala ere (bakoitza bere neurrian) duten onena eskaintzeko prest azaldu dira.

Bestalde, baliabideei eta materialari dagokienean ere, ez da batere arazorik izango erakunde eragileok dauzkagun baliabideak proiektuak aprobetxa ditzan. Lau erakundeok daukagun infraestruturak proiektuak aprobetxatu ahal izango du. Halere, gure nahia ez da inori trabarik egitea eta proiektuak erosi egingo ditu eguneroko funtzionamendurako beharrezkoak dituen tresna eta bitartekoak: teknikariaren mahaia, aulkia eta ordenadorea, adibidez.

Teknikariaren lantokia:

Lau eragileon esanetan, teknikariak ELGOIBARKO IZARRAren lokaletan lan egitea komeni da. Batetik, euskaltegi batean lan egiteak identifikazio arazoak ekar ditzakeelako, eta bestetik, teknikariak dezente laguntza beharko duelako, hasieran behintzat. Laguntza hau Elkarteko teknikariak eskainiko dio.

Beraz, ELGOIBARKO IZARRAK bere idazkaritza berrantolatuko du eta teknikariarentzako tokia prestatuko du.

4.- AURRERANTZEAN ZERK DAUKA LEHENTASUNA? EUSKALTEGIEN INTERES PARTIKULARREK ALA PROIEKTUARENAK?

Bi euskaltegien esanetan, proiektuaren interesek euskaltegienekin txoke egiten duten kasuetan, proiektuaren interesak eta helburuak euskaltegien interes partikularren aurretik jarri behar ditugu. Adibidez: Proiektuak sagardotegira joateko irteera bat antolatu badu eta euskalategi batek egun bererako beste irteera bat antolatzen badu, azken honek berea bertan behera lagako du proiektuak prestatutako irteeraren mesedetan. Alabaina, bi euskalategiek azpimarratu nahi dute komunikazioaren garrantzia, haserrerik eta gaizki ulertzerik izan ez dadin batez ere. Proiektuko teknikariaren eta euskalategietako zuzendarien artean komunikazio puntuala eta zuzena egotea komeni da egitasmoak prestatzeko orduan. Izan ere, helburuen atalean adierazi dugun bezala, proiektua euskaltegien lanari laguntzeko da, eta ez gure artean haserreak pizteko.

Udalaren eta Elgoibarko Izarraren ikuspuntutik benetan estimatzekoa da euskalategiek proiektuarekiko erakutsi duten jarrera. Lau erakundeok ere jarrera hau erakusten badugu gauzak asko erraztuko zaizkigu eta bidean aurrera egiteko oztopo asko gaindituta izango ditugu.

5.- PROIEKTUKO ESKAINTZETAN EUSKARA IKASLEEK IZAN BEHAR DUTEN TRATAMENDUA

Proiektuak apropos prestatu eta eskaintako egitasmoetan, euskaltegi bakoitzak ohiko eskaintzarako dituen beka sistemak eta bestelako abantaila bereziak indarge geratuko dira.

Beraz, proiektuak berak erabakiko du egitasmo bakoitzean zer-nolako laguntzak eta abantailak eskaini, beti ere proiektuko eragile guztien oniritziarekin eta babesarekin.

6.- KONTZEPTUEI BURUZKO GOGOETA

Segidan datorren gogoeta filosofia txostenean azaltzen diren bi kontzepturi buruzkoa da. Izan ere, badira kontzeptu batzuk zalantzak sorrarazten dituztenak. Hau da, integrazioa edo hizkuntz komunitatea bezalako kontzeptuak aipatzen ditugunean, denok gauza bera ulertzen al dugu? Gu ezezkoan gaude, eta horregatik, aurrera egin aurretik bi kontzeptu hauek definitzea pentsatu dugu.

6.1.- INTEGRAZIOA:

Benetan kontzeptu garrantzitsua eta erabilia dela ezin ukatu. Erdaldunen integrazioa hamaika aldiz hartu izan da ahotan euskalgintzaren eta helduen euskalduntze alfabetatzearen inguruan jardun izan denean. Baina, zer ulertzen dugu guk integrazioa esaten dugunean?

Proiektu honen helburuetako bat Elgoibarko erdaldunak euskaldunon hizkuntz komunitatean integratzea da. Badakigu Elgoibarko gizartean integratzeko ez dela derrigorrezkoa euskara jakitea, hamaika herritar daukagu euskara ez jakin arren Elgoibarko gizartean integratuta daudenak, neurri batean behintzat. Baina, gure uste apalean, herritar hauek badute hutsune bat benetako integrazioa lortzeko, herri honen errealitatearen zati garrantzitsu bat galtzen dute euskara ez jakiteagatik. Ez dugu uste Elgoibarko gizartean integrazio osoa lor daitekeenik euskara jakin barik. Akaso eremu batzuetan eroso moldatu eta mugitu ahal izango dira, baina, eta zorionez diogu hau, Elgoibarren bada hainbat espazio euskara jakin gabe integrazioa nekez lortu daitekeenik. Beraz, eta hasteko, bi integrazio maila bereiztuko ditugu: bat, euskara jakin gabe lor daitekeen integrazioa, eta bestea, euskara jakinda lor daitekeena. Guk bigarren integrazioaren aldeko apustua egingo dugu lehen aipatu ditugun arrazoiengatik. Bestalde, ez dugu uste euskara ikastea nahikoa denik integrazioa lortzeko. Hizkuntza ezezik herri honen kultura, historia, ohiturak eta antzerakoak ere ezagutzea lagungarria izango da integrazio prozesuari eragiteko. Izan ere, benetako integrazioa lortzeko herriarekiko identifikazioa eta atxikimendua eman behar dela uste dugu, eta hau herria ezagutuz bakarrik gauzatu daiteke. Beraz, gure lana ez da izango erdaldunei euskara irakastea bakarrik, Elgoibarko (eta Euskal Herriko) errealitatearen beste aurpegiak ere erakutsi behar dizkiegu.

Integrazioarekin amaitzeko, integrazio prozesuan ahaleginak bi norabidetan datozela konturatu behar dugu. Bata, erdaldunak bere aldetik egin behar duen ahalegina izango da. Pertsona horrek sekulako ahalegina egin behar du euskara ikasi eta euskaldunon artean integratzeko. Eta bigarren norabidea, euskaldunoi dagokiguna da. Euskaldunon esku ere badago neurri handi batean integrazioaren giltza. Euskara ikasten ari diren erdaldunak mimatu egin behar ditugu, lagundu egin behar diegu, gure artean izan nahi ditugula ikusi behar dute. Integrazio prozesuan bakarrik ez daudela sumatu behar dute.

Hauxe da hain zuzen ere proiektu honen beste zereginetako bat, erdaldunen integrazioan euskaldungoa inplikatzeko.

6.2.- HIZKUNTZ KOMUNITATEA:


Aurreko puntuan integrazioari buruz jardun dugunean, erdaldunak euskaldunon hizkuntz komunitatean integratu behar ditugula aipatu dugu. Baina zer da hizkuntz komunitatea? Hizkuntz komunitate bat pertsonak osatzen duten edozein talde izan daiteke. Bikote batek, familia batek, koadrila batek, elkarte batek edo herri bateko biztanleek hizkuntz komunitate bat osatzen dute.

Gure helburua Elgoibarren hizkuntz komunitate egituraturatua eta normalizatua eraikitzea da. Ez dugu uste Elgoibarren bi komunitate eraikitzeak (euskaldunak alde batetik eta erdaldunak bestetik) inori mesederik egingo liokeenik.

Nola egituratzen da hizkuntz komunitate normalizatua?

Guk proposatzen dugun egituraketan denek izango dute tokia, erdaldunek ere bai. Baina hiztun tipologiaren arabera antolatuko dugu komunitatea. Erdigunea euskaldun osoek beteko dute AB + BA (euskaldun zahar alfabetatuak + euskaldun berri bertakotuak); gero euskaldun zahar alfabetatu gabekoak dauzkagu (A); ondoren euskaldun berri bertakotu gabeak egongo lirateke (B), eta, azkenik, erdaldunak (\emptyset).

Hizkuntza komunitate normalizatuaren egituraketa.



- AB: Euskaldun zahar alfabetatuak
- BA: Euskaldun berri bertakotuak
- A: Euskaldun zahar alfabetatu gabeak
- B: Euskaldun berri bertakotu gabeak
- \emptyset : Erdaldunak

Komunitatearen erdigunea euskaldun osoek betetzea ezinbesteko baldintza izango da komunitate horrek dauzkan behar linguistikoak euskaraz zuzen bete nahi baditugu. Euskaldun osoak erdigunean jartzen ez baditugu, berriz, zailtasunak izango dira komunitate horrek dituen behar linguistikoak euskaraz zuzen betetzeko edo, gehienetan gertatzen den bezala, gaztelaniaz gauzatuko dira.

Amaitzeko, garbi geratu behar du egituraketa hau ez dela estatikoa. Erdaldunak, adibidez, ez ditugu periferian betirako laga nahi. Aurreko puntuan esan bezala, gure nahia integrazioa lortzea da, eta integrazioa periferiatik erdigunerantz joateko gonbitea luzatzea da. Bakoitzaren hizkuntz tipologia optimizatuz elgoibartarron gehiengoa AB edo BA izatea da gure helburua.

Hiztun optimizazioa:

$\emptyset \rightarrow B$

$B \rightarrow BA$

$A \rightarrow AB$

7.- MATRIKULAZIO KANPAINA BATERATUAK

Arestian aipatu bezala, eskuartean dugun proiektu honen helburua Elgoibarren helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzea denez, euskarari bultzada emateko baliagarria izan daitekeen oro egin beharko du proiektuak. Beraz, bi euskaltegiek (kasu honetan inplikatu nagusiak) matrikulazio kanpaina bateratuak egiteari baietza eman diote proiektuak horrela erabakitzen duenean.

Halere, eta argi gera dadin, euskaltegi bakoitzak bere matrikulazio kanpainak egingo ditu orain arte bezala. Eta proiektuak kanpaina bateratua egitea pentsatuko balu, euskaltegien lanaren osagarri izango litzateke.

SEKTOREAREN EGOERA ELGOIBARREN

1.- EUSKARAREN EGOERA ELGOIBARREN

1.1.- EZAGUTZA

| | 1986 | 1991 | 1996 |
|-----------------------|-------|--------|--------|
| EUSKALDUNAK | % 53 | % 56,3 | % 59 |
| IA EUSKALDUNAK | %13 | % 9,9 | % 9 |
| ERDALDUNAK | %33,7 | %33,5 | % 31,7 |

HPSk 5 urtetik gorako biztanleen artean egindako azterketa soziolinguistikoa.
Ia euskaldun pasiboak erdaldunetan sartzen ditu.
(EUSTATEk erdaldunak %27,9 direla dio eta HPSk %31,7).

Elgoibar pixkanaka euskaldunduz badoa ere, oraindik elgoibartarren %31,7a erdaldun elebakarra da. Ez al da askotxo? Argi dago erdaldun elebakar hauen artean adinean aurrera doan jendea dagoela eta hauen euskalduntzea zaila izango dela, baina beste asko euskaldun-gaiak dira.

Bestalde, nahiz eta daturik izan ez, euskaldun eta ia euskaldunen artean, alfabetatu eta hizkuntz gaitasun hobea edo altuagoaren beharra duen elgoibartar asko dagoela iruditzen zaigu.

1.2.-ERABILPENA

| | 1991 | 1996 | 1998 |
|------------------------------|--------|--------|--------|
| HAURRAK 0-4 urte | % 40,5 | % 52,9 | % 68 |
| GAZTEAK 15-24 urte | % 22 | % 29,5 | % 39,1 |
| HELDUAK 25-64 urte | % 19 | % 23,3 | % 29,8 |
| ZAHARRAK 65 urte > | % 43,8 | % 40,8 | % 40,6 |
| GUZTIRA | % 25,2 | % 31,7 | % 40,3 |

SIADECok Elgoibarren kale erabilerari buruz eginiko azterketa.

Azkenik, kale erabilerari erreparatuko diogu. Aurreko taulan ageri den moduan euskararen erabilerak goranzko joera badu ere (1991ko %25,2tik 1998ko %40,3ra), haurren hizkuntza dela dirudi.

Portzentajeei begira, euskararen erabileraren hazkundera ezagupenarena baino nabarmenagoa izan da. Edozein kasutan, kontutan izan behar da ezagupen-mailari buruzko indizea, erabilerari buruzkoa baino sistematikoagoa dela: ezagupen-indizea herritar guztien hizkuntza gaitasun aitortua jakinik eraikitzen da, eta erabilera-indizea berriz, momentu jakin batean herriko zonalde eta ibilbide jakin batzuetan behatzen diren zenbait herritar erabiltzen ari diren hizkuntzaren arabera.

SIADECOk 98an erabilerari buruz egindako azken kale neurketan, adin ezberdinetako pertsonen, giro desberdinetan (ikasleen irteerak, familia giroa, paseo eta jolas lekuak, txikiteoa, erosketa giroa eta gazte giroa), erabiltzen duten hizkuntza aztertu zen.

Ikerketa honen ondorioetako batzuk hauek dira:

- euskara gutxien erabiltzen dutenak helduak dira eta helduen txikiteoan ematen da erabilerarik baxuena (%22,7).
- gehien erabiltzen dutenak zaharrak ikastetxeen irteeran (%92,3) dira, eta hauek ere txikiteoan %29k besterik ez du erabiltzen euskara.
- indizerik altuenak ikastetxeetako irteera eta paseo/jolaslekuetan ematen dira, beraz, ume eta gaztetxoen presentziak euskararen erabileraren aldeko eragina duela esan daiteke.
- adin bereko pertsonen arteko harreman informaletan ordea, euskararen erabilerak indarra galtzen du, bertan ematen baitira indizerik eskasena.

Bukatzeko, euskara ikasleen daturik izan ez arren, euskaltegitik kanpo euskara erabiltzen duen ikasle gutxi dagoela esan dezakegu.

Beraz, Elgoibarren euskararen normalizazioa lortu nahi badugu, euskararen ezagutza, kalitatea eta erabilera bultzatuko dituen eta euskaltegien lanaren osagarri izango den plangintza serio baten beharrean aurkitzen gara.

2.- EUSKALTEGIETAKO DATUAK

| | UDAL EUSKALTEGIA | | | | | AEK | | | | | GUZTIRA | | | | | | |
|---------------------|------------------------|------------------------|----------|------------------|-------|------------------------|----------|----------|------------------|-------------------------|------------------------|----------|-----|------------------|--------------------|-------|------------|
| | IKASLE KOPURUA ● | EUSKALD. | | TALDERIK GABE | BAJAK | IKASLE KOPURUA ● | EUSKALD. | | TALDERIK GABE | BAJAK | IKASLE KOPURUA ● | EUSKALD. | | TALDERIK GABE | TALDERIK GABE % | BAJAK | BAJAK % |
| | | EGA+ALFA | ALFA+EGA | | | | ALFA+EGA | ALFA+EGA | | | | | | | | | |
| 91-92 | 141 | 108 33 | 19 | 56 | 84 | 64 20 | 15 | 16 | 225 | 172 53 | 34 | 13 | 72 | 32 | | | |
| 92-93 | 124 | 79 45 | 26 | 33 | 72 | 62 10 | 12 | 17 | 196 | 141 55 | 38 | 16 | 50 | 25 | | | |
| 93-94 | 167 | 133 34 | 8 | 49 | 84 | 74 10 | 19 | 17 | 251 | 207 44 | 24 | 9 | 66 | 26 | | | |
| 94-95 | 146 | 122 24 | 23 | 38 | 95 | 64 31 | 16 | 14 | 241 | 186 55 | 39 | 14 | 52 | 21 | | | |
| 95-96 | 119 | 94 25 | 26 | 41 | 75 | 66 9 | 19 | 13 | 194 | 160 34 | 45 | 19 | 54 | 28 | | | |
| 96-97 | 126 | 90 36 | 29 | 27 | 66 | 56 10 | 25 | 23 | 192 | 146 46 | 54 | 22 | 50 | 26 | | | |
| 97-98 | 98 | 70 28 | 11 | 20 | 57 | 49 8 | 19 | 13 | 155 | 119 36 | 30 | 16 | 33 | 21 | | | |
| 98-99 | 83 | 69 14 | 16 | 21 | 74 | 66 8 | 18 | 10 | 157 | 135 22 | 34 | 18 | 31 | 20 | | | |
| GUZTI RA | 1004 | 765 (%76) 239 (%24) | 158 | 285 | 607 | 501 (%83) 106 (%17) | 143 | 123 | 1611 | 1266 (%79) 345 (%21) | 301 | 16 | 408 | 25 | | | |

Taula hau ez da bi euskaltegien arteko datuak konparatzeko helburuarekin egin.

Kontuan izan behar da dirulaguntza politikaren ondorioz, ikasleek baldintza ekonomiko ezberdinak izan dituztela euskaltegi batean edo bestean.

2.1.-MATRIKULAZIOA

Azken 8 ikasturte hauetan bi euskaltegietako ikasleen % 79 EUSKALDUNTZEko matrikulatu da eta %21 EGA eta ALFABETATZEko.

Udal Euskaltegiko ikasleen: % 76 EUSKALDUNTZEN.
 % 24 EGA eta ALFABETATZEN.

AEK-ko ikasleen: % 83 EUSKALDUNTZEN.
 %17 EGA eta ALFABETATZEN.

AEK eta Udal Euskaltegiko matrikulen kopuruen artean zegoen aldea gutxituz doa.

Iaz 157 pertsona matrikulatu ziren. Asko/gutxi al dira?

Gero eta jende gehiagok daki euskaraz eta matrikulazioa beherantz doa. Hala ere ez al da jendea motibatu beharko euskara ikastera?

(ikus grafikoa 17.orr)

2.2.-BAJAK

Azken 8 urteetan, matrikulatu diren ikasleen % 25 baja izan da (408 ikasle). Baja hauek hasierako urratsetan eta EGAn ematen dira batez ere.

Ikasleek ematen dituzten arrazoiak ondorengo hauek dira:

- Lana aurkitu.
- INEMeko ikastaroak.
- Ikasketak.
- Txandakako lanak.
- Maila egokirik ez.
- ...

Baina arrazoi horiez gain ez al da motibazio falta egongo? Badakigu hizkuntza bat ikastea zaila dela, baina nahi duenak astia hartzen du edo eta lehentasuna ematen dio nahi/behar duen horri.

(ikus grafikoa 18.orr)

2.3.-TALDERIK GABE GELDITZEN DIRENAK

Aurreko taulan aztertu ditugun azken 8 ikasturteetan izena eman duten ikasleen %15,7k (301 pertsonak) ezin izan du euskara ikasi bere mailako talde egokirik sortu ez delako.

Euskara ikastera jende gutxi animatzea larria da, baina ez al da larriagoa nahi duenari aukerarik ez ematea? Arazo honi irteeraren bat aurkitu behar zaio lehenbailehen.

(ikus grafikoa 19.orr)

2.4.- PREZIOAK

| | 1998-1999 | | 1999-2000 | |
|-----------------------------|---|----------------------------------|-----------------------|--------------------|
| | UDAL EUSKALTEGIA | AEK EUSKALTEGIA | UDAL EUSKALTEGIA | AEK EUSKALTEGIA |
| MATRIKULA | 130 pta/orduko | 140 pta/orduko | 140 pta/orduko | 147 pta/orduko |
| MATERIALA | 3.000 pta. | 0 pta. | 3000 pta. | 0 pta. |
| BEKA | Urte osoko ikasturteetan. Matrikularen %75 itzultzen zaie baldintza hauek betetzen dituztenei: asistentzia %90 kurtsoa bukatu frogak egin urrats 1 gaingitu | Ez dago | Aurreko ikasturtekoa. | Ez dago |
| IKASLE ETA LANGABETU | Matrikula erdia | Matrikula erdia 97-98tik aurrera | Matrikula erdia | Matrikula erdia |

Gero berriro ere aipatuko dugun bezala, aurreko prezio hauek euskaltegienak dira baina proiektuak prestatu eta eskaintako egitasmoetan ikasleek ezingo dute inolako diferentzia ekonomikorik izan euskaltegi baten edo bestean egoteagatik.

2.5.-EMAITZAK



AEK euskaltegian azken urteotan (91-92 ikasturtetik 96-97 ikastertera) 40 ikaslek lotu dute 8. urratsa burutzea eta horietatik 19k lortu dute erabateko gaitasun komunikatiboa, ahozkoa zein idatzizkoa, beti ere ahozkoari lehentasuna emanaz.

UDAL EUSKALTEGIAN epe berean eman diren emaitzak, ondorengo hauek dira:



| HASIERA URRATSA | 8. URRATSA LORTU DUTENAK |
|-----------------|--------------------------|
| 1. urratsa | 11 ikaslek |
| 2. urratsa | 4 ikaslek |
| 3. urratsa | 6 ikaslek |
| 4. urratsa | 12 ikaslek |
| 5. urratsa | 11 ikaslek |
| 6. urratsa | 1 ikaslek |
| 7. urratsa | 9 ikaslek |
| GUZTIRA | 54 |

3.- GRAFIKOAK

3.1.- MATRIKULAZIOA



3.2.- BAJAK



3.3.- TALDERIK GABE GELDITU DIRENAK

